

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
IGOR EGUREN

Lazkaomendi (Gipuzkoa)

Goierriko balkoia

Joxe Migel Iztueta “Lazkao txiki” zenak ondo asko famatu zuen Lazkaoko begiratokia.
Jaiotzen ikusi zuen lekuaren izena harrotasunez atxiki izan zion beti bere ospeari.
Bertsolari handiaren sorlekua, goierritarren ohiko pasealeku ez ezik
bisitari duen ororentzat paraje ikusgarria ere bada.

Lazkaomendiko larre zabaletatik Aizkorri eta Aralar mendizerrak soaldi bakarrean lotzen dira. Lazkao-tik, Ordiziatik eta Zaldibiatik hel dakioke haranzko bideari; oinez zein autoarekin. Tokiaren izenari eta kokalekuari men eginez gero, lehenengotik hasi beharko genuke ibilaldia. Baina gida-liburuek aski ezaguna egin dutenez Lazkao-tik irtenda egiten den pausoa, Zaldibiatik abiatuko dugu geurea.

Zaldibia Aralar mendizerraren oinean dago. Bisitaria herri sarrerako larre zabaletara iristen denean, haren gibelean altxatzen den Txindoki mendi itzaltsuak liluratuko du. 1.346 metroko garaiera duen gain ospetsu-tik gure kostetako itsasoa ere ikusten da ateri dagoen egunetan. Kale Nagusian barrena, hiribarrua zeharkatu eta Egileor auzoraino egin behar da. Ola, Olako Errota eta Olalde osatzen duten baserri multzoan hasten da

Lazkaomendira eramango gaituen zementuzko bidea.

Maldan gora, paradisuaren bila

Erreka gaineko zubitxo zeharkatu eta txangoaren oztopo bakarrari egin behar zaio aurre, 400 metro aldats gora. Zuhaitzarte ederraren ondotik, tarte motzeko malda malkartsuak Bianda (Miranda) baserria dagoen bihurguneraino darama errepideak. Bide erdira irteten diren etxe-abereak

Lazkaomenditik Aralargo mendilerroa ikusten da parez pare. Gañeta, Txindoki, Gaztelu, Larraone, Amezketako Malloak, Uakorri eta Balerdi.





San Joan Ante Portam-Latinam ermita, San Joan Txiki izenez ezagunagoa, Itxurrene jatetxearen alboan dago eta bisitari ugari jaso ohi du beti.

lagun harturik lehen irudi paradisu-koa datorkigu bistara. Bidearen ezkerretara, albo-alboan bailiran, Txindoki eta Gazteluko mendien gailurrek agur egiten digute. Gipuzkoa 1200. urtean Gaztelako erresumari eratsi zitzaionean, Gaztelako Koroari Ausoko harkaitz-gaztelua eman zitzaion eta horregatik Gaztelu izenez ezagutzen da mendi hau.

Hemendik aurrerako bidea gora-behera gutxikoa da. Ibilbidearen albo bietan dauden larre irekiek Lazkao-mendiraino garamatzate. Oinezko 500 metro besterik ez eta Okobio eta Goizargi baserrien ondotik lehenengo geraleku inportanterara helduko da bidaiaria: Itxurrene jatetxera. Indar berritzeko salda beroa edo txorixo muturra mokadu oparoa dira etxe

honetan. Besterik nahi duenak, sukalde tradizionaleko eskaintza zabala aurkituko du bertan.

Kopaua jaisteko-edo apropos egiten du bideak beherantz. Maiz baserri multzoan San Joan Txiki ermita dago, berez San Joan Ante Portam-Latinam deitzen dena. Azken aldapa igotzeko bedekaziorik behar duenak hementxe du aukera. Bidean gora baina, ez dira beste 500 metro baino gehiago, eta egitea merezi duela ikusiko du iristen denak. Dozena erdi bihurgune gaintitu eta bideak Lartxai izeneko etxeraino eramango gaitu. Garaian auzoko haurren eskola izan bazen ere, egun baserritarren elkartea da. Berezi, ordea, kokalekuak egiten du: Zaldibiatik, Lazkaotik eta Ordiziatik heltzen diren errepideak bertan batzen dira.

Bidegurutzea atzean utzi eta Ordiziarako bidea hartu behar dugu, 200 metro eskasera dagoen Goierriko begiratokira iristeko. Albitxu Goena baserrian dago Pipas jatetxea, parajeotan preziatuak bada, preziatuena. Hango otorduen goxotasuna azpimarratzekoa bada, are gehiago da etxeko atarian esertzeak ematen duen plazera. Basoerdi bat eskuetan hartuta, urtarok ez dio askorik axola halako paradisuak biltzen zaituenean. Alde batera, Txindoki eta Larraone, Amezketako Malloak; alboan Uakorri, Balerdi, Gaztelu eta Gañeta. Bestaldean, Aizkorriko mendilerro orekatu eta gogorra. Soaldi bakarrean Euskal Herriko mendi multzo esanguratsuenetakoa bat. Eta behean, bistak ematen duen arte, eskualdeko herrien segida. ■



UZTARTZA
Aterpetxea • Jatetxea

Herriko plaza 7 - 20150 Aduna
Tfnoa: 943 69 34 81

Eguneko menua 9,50 €

Asteburuko menua 18 €

Asteburutan karta